

## Piragua ikastaroa Donostian eta surf ikastaroa Zarautzen

2017/06/20

Aurreko larunbat goizean, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzutik, piragua ikastaroa antolatu genuen Donostian eta 15 ikasle animatu ziren parte hartzera. Arratsaldean, Zarautzen surf ikastaro bat egiteko aukera ere izan zuten ikasleek eta 20 izan ziren bertaratutakoak.

Ikasle horietako asko atzerritik Mondragon Unibertsitateera etorritakoak izan ziren eta bi ikastaroetan parte hartu zuten. Eguraldia ederra izan zuten eta giro paregabea pasa zuten eguna. Ziur gaude oroitzapen polita eramango dutela beraien herrialdeetara.



Piragua ikastaroa Donostian